



LARRAULGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Larraulen 2021 eko Otsailaren 10an

## **ETXEAN EDO AUTOKONTSUMORAKO HEGAZTIAK HAZTEN DITUZTEN HERRITARRENTZAT OHARRA**

**Hegazti- gripea zabaltzen ari da eta informazioa behar bezala helarazteko Eskualdeko Nekazaritza bulegoarekin harremanetan jartzea eskatzen diegu autokontsumorako hegaztiak hazten dituzten herritarrei.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak aditzera eman duenez, iazko uztailetik areagotu egin da hegazti-gripearen eragina Europako ekialdeko eta iparraldeko herrialdeetan. Azken asteetan gainera, fokuak atzeman dira basoko eta etxeke hegaztietan Landetan, Kantabrian eta Gironan.

Egoera horren aurrean, biosegurtasun-neurriak indartu egin dira erregistratutako Gipuzkoako hegazti ustiategi guztietan. Ustiategi horiek badute hegazti migratzaileek etxeke hegaztientzat izan dezaketen arriskuen berri eta jakinarazi zaie jarraitu beharreko protokoloa zein den. Ordea, ez dute informazio garrantzitsu hori jaso autokontsumorako hegaztiak hazten dituzten herritarrek.

Gauzak horrela, baserrian edo etxean hegaztiak hazten dituzten eta Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean erregistratu gabe dauden herritarrei udalarekin harremanetan jartzeko deia egin nahi diegu.

Baserrian edo etxean autokontsumorako hegaztiak badituzu, mesedez deitu eskualdeko Nekazaritza bulegora eta hegaztien inguruko datuak bilduko dituzte. Ondoren datu horiek Gipuzkoako Foru Aldundira igorriko dira. Hartara, hegaztien errolda osatu ahal izango du Aldundiak. Horri esker, Foru Aldundiak hegaztiak dituzten herritarrekin harremanetan jartzeko modua izango luke hegazti-gripeari lotutako larrialdiren bat balego.

Hauexek dira eskualdeko nekazaritza bulegoko helbide eta telefonoak:

943.41.51.27 (Alberto) , 943.41.51.21 (Estitxu), 943.41.51.26 (Mikel), 943.41.51.22 (Iraia)

Helbide elektronikoak: [iurreaga@gipuzkoa.eus](mailto:iurreaga@gipuzkoa.eus) eta [mcarlosdebergara@gipuzkoa.eus](mailto:mcarlosdebergara@gipuzkoa.eus)

Milesker, adeitasunez

Alkatea  
Maite Arana